

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **23/2019 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzen duena**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko abenduaren 13an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

23/2019 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzen duena.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Behin Foru Gobernu Kontseiluak Arabako lurralde historikoaren 2017ko ekitaldiko Likidazio Kontu Orokorra onartu ondoren, Arabako lurralde historikoaren Kontu Orokorren espedientea egin da. Hura onartzea Arabako Batzar Nagusiei dagokie, abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoaren, 116. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

ARTIKULU BAKARRA. Arabako lurralde historikoaren 2017ko ekonomia ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 13a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**